

Bake Konferentziaren Karpeta



Conferencia de Paz Bake Konferentzia

Aurkezpena

Bake Konferentzia bat bultzatzeko asmoa 2001eko otsailaren 11ean iragarri zuen Elkarrik. Egun horretatik 2001eko urria bitartean Prestakuntza Fasea garatu zen: 50.000tik gora lagunek babestu zuten proiektua sinadura eta 1.000 pezetan bitartez; Bruselaseko, Bartzelonako eta Madrileko Laguntza Batzordeak osatu ziren aniztasun zabaleko pertsonekin; Bake Konferentziaren Ohorezko Batzordea aurkeztu zen, 7 Nobel Sari eta nazioarteko hiru pertsonalitate ezagunez osatua; eta prozesuaren metodologia prestatu zen indar politikoen artean ahalik eta kontsentsu handiena bilatzeko asmoz.

Bake Konferentziaren Garapen Fasea 2001eko urriaren 7an abiatu zen, Bilboko Euskalduna Jauregian 2.500 lagunengana aurrean egin zen ekitaldi batekin; eta 2002ko urriaren amaieran da kontsentsu bila urte bete lanean jardun ondoren. Data hori heldu aurretik eta emandako hitza bete nahian, Elkarrik 2002ko ekainean karpeta honetan laburtu eta biltzen den prozesuaren emaitzen behin-behineko balantzea aurkezten du.

Bake Konferentzia prozesua lau proiektutan egituratu da: «Hitz» bat, «Liburu» bat, «Dosier» bat eta «Orri» bat. Lehenengo proiektua, dagoeneko itxia, berdintasun hitzarekin loturik dago eta printzipio hau Bake Konferentziaren gida-irizpide eta gure gizartearen gutxienezko hitzarmen gisa zabaltzea izan du helburu. «Liburua»ren proiektua, hausnarketa eraikitzaile eta iritzien alderatze testuinguru bat bultzatzen saiatu da, hitzaldi eta eztabaida programa zabal baten bidez. Proiektu honen emaitza da argitaratu den «Bakeak egiteko gakoak» Bake Konferentziaren Liburua.

Hirugarren proiektua, «Dosierra», gizartearen parte-hartzea bideratu eta jaso du. Jasotako herritarren milaka ekarpenek, «gizartearen parte-hartzea: Bake Konferentziaren Dosierra» argitalpena ekarri dute. «Orri»ak, laugarren proiektuak, zortzi moderatzailez osatutako talde baten eta indar politikoen artean komunikazio zirkuitu bat sortu du Bake Konferentziaren helburu nagusia lortzen saiatzeko: bakearen eta berdintasunaren aldeko akordio zabal bat lortzea. Proiektu hau oraindik ez da amaitu. Behin betiko ondorioak urriaren amaierako dira.

Bake Konferentziaren Karpeta honek itxitako lehenengo hiru proiektuen ondorioak jasotzen ditu («Hitz» bat, «Liburu» bat eta «Dosier» bat). Honekin guztiarekin batera, «Orria»ren proiektuaren barruan eztabaidatzen ari diren zirriborroak eta parte hartu duten alderdiek orain artekoak egiten duten balorazioa aurkezten dira. Karpeta hau argitaratzearen helburua prozesua amaitu bitartean, -urriaren amaiera bitartean- gizartearekin Bake Konferentziaren behin-behineko emaitzak konpartitzea eta gizartearen zein gizarte eragileen iritzia eta parte-hartzea jasotzea da.

Bake Konferentzia

1. Proiektua

«Hitz» bat

**Berdintasun printzipioa
abiapuntu gisa**

1. Proiektua. «Hitz» bat

Berdintasun printzipioa abiapuntu gisa

Elkarriri ez zegokion, antolatzaile gisa, Bake Konferentziaren edukiak finkatzea. Baina bazuen bultzatzaile gisa abiapuntu bat finkatzeko betebeharra. Abiapuntu horrek, gizarte mugimendu honen konpromisoa adierazteaz gain, ekimenaren gida-printzipioa definitu behar zuen. 2001eko irailaren 15ean, Bake Konferentziaren hasiera-ekitaldia baino hiru aste lehenago, «Hitz bakar batek laburbiltzen du Elkarriren konpromisoa» agiria eman zen ezagutzera. Agiriak berdintasun printzipioan kokatzen zuen prozesuaren abiapuntua.

Ordutik, 2001eko urritik 2002ko ekaina bitartean, Bake Konferentziak behin eta berriro probatu du berdintasunaren printzipioa gure gizartean kontsentsu prozesu baterako abiapuntu gisa: milioi bat etxeetan banatu da «Berdintasuna, gutxieneko hitzarmena» foilettoa; gai hau masiboki eta antolatutako 180 ekitaldi publikoetan banatu den Parte-hartze Koadernoko galderetan sartu da; aurrekoaren ondorioz, herritarren milaka ekarpen jaso dira; hitzaldi desberdinetan parte hartu duten hizlariak honen inguruan hausnarketarako aukera izan dute era berean; eta, honekin batera, bere potentzialtasuna indar politikoekin kontrastatu da. Irizpen hau Elkarrirentzat gizartean eta politikan kontsulta ariketa zabal baten ondorioa da.

Akordioa bilatzen duen edozein prozesuk definitu behar du zein euskarri sendoan oinarrituko den eta nondik bideratu eta hasiko den bateratzea. Sentikortasun politiko guztiak kontuan hartuz, gizarte honek egungo arazoak gainditzeko egin dezakeen ibilbidea bilatzeko prozesu bat da Bake Konferentzia.

Bederatzi hilabetetako lanaren ondoren, Elkarririk irizpen honen bidez honakoa baieztatu nahi du: berdintasuna, printzipio etiko, politiko eta demokratiko, eta zatiezina bezala ulertuta, oinarri sendoa da gaur gure gizartean, eta gure testuinguru historiko zein geografikoan, akordio prozesu baten abiapuntua finkatzeko. Ondorio honen arrazoibideak hurrengoak dira:

- Historiaren ikuspuntutik. Berdintasun printzipioak gizakiaren alde onenarekin eta elkarbizitzeko duen gaitasunarekin bat egiten du. Desberdintasunaren errespetuan oinarrituta, gizateriaren aurrerakuntza nabarmenenak irudikatzen ditu, lortutako eta lortzeke dagoena printzipio honekin dago harremanetan. Berdintasunean sakontzen dugun bakoitzean, aurrera egiten dugu gizatasunean.

- Gizartearen ikuspuntutik. Gure gizartearen pentsakerarekin kulturalki bat egiten du, bateratzailea, aniztasunaren errespetuarekin harremanetan dagoelako eta gizalegearen adierazle ukalezina delako. Agortu gabe dagoen printzipioa da eta nahikoa esploratu ez diren berrikuntza eta sakontze aukerak eskaintzen ditu.

- Politikaren ikuspuntutik. Bat-etortze lehen esparru bat iradokitzen du. Ez du errefus edo arbuiorik sortzen indar politikoetan, elkar ulertzeko gutxieneko konfiantza eta joko-arau edo lehen abiapuntu bezala konpartitu ahal izango litzateke. Demokraziaren ikuspuntutik eztabaidaezina da.

- Sufrimenduaren ikuspuntutik. Salatzen diren bidegabekeri guztientzako erantzun alternatibo bat biltzen du. Indarkeriak eta giza-eskubideen urraketak eragindako sufrimenduen aurrean, gizatasun eta elkartasun oihartzuna da.

- Etikaren ikuspuntutik. Berdintasuna gizateriaren duintasunari lotuta dago, pertsona guztiak berdina egiten gaituen gizatar dohaiaren balore osoko errealitatea. Berdintasuna pertsonen duintasunean elkarbizitzaren oinarri, gatazkak konpontzeko giltzarri eta indarkeria errefusatzeko behin betiko argudioa da.

Berdintasuna herritar guztiei eskubide berberak izateko gaitasuna aintzatesten dien printzipioa da. Gatazken konponbiderako printzipio honek eskaintzen duen gaitasuna berau osotasunean onartzean eta, ahalik eta gehien, sakontzean datza, bereziki oinarrizko eskubideak eta askatasunak arriskuan daudenean. Gure testuinguruan zatiezinak zaizkion hiru esanahi biltzen ditu berdintasun printzipioak:

- Bizi-egoeren berdintasuna, herritar guztien oinarrizko giza eskubideak babesteko.
 - Baldintza politikoen berdintasuna, ideia eta nortasun politiko guztiak askatasun osoz ordezkatu ahal izateko.
 - Baldintza demokratikoen berdintasuna, proiektu guztiak joko-arau berberen arabera gauzatu ahal izateko.
- Elkarriren eta Bake Konferentziaren konpromisoa eta eginkizuna adierazten ditu berdintasun hitzak. Berdintasun printzipioa hasierako topalekua izan daiteke akordio bat josi eta gure historiaren eraikuntzan kontaketa berri bati ekiteko.

1. koadroa. «Hitz» bat proiektuaren ondorioak

	Berdintasuna	Berdintasuna	Berdintasuna	
Berdintasuna	bizi-egoeren	oinarrizko giza eskubideak babesteko	gizaki guztien	Laburbilduz: Bakerako berdintasuna
Berdintasuna	baldintza politikoen	idea eta nortasun guztiak ordezkatzeko	askatasunean	Laburbilduz: Askatasunerako berdintasuna
Berdintasuna	baldintza demokratikoen	proiektu politiko guztiak gauzatzeko	joko-arau berberen araberako	Laburbilduz: Elkarbizitzarako berdintasuna
	Printzipioa Abiapuntua	Hitzarmena Joko-araua	Helburua Helmuga	

Bake Konferentzia

2. Proiektua

«Liburu» bat

**Hausnarketa eta proposamenen
alderatze prozesu baten
ondorioak**

2. Proiektua. «Liburu» bat

Hausnarketa eta proposamenen alderatze prozesu baten ondorioak

2001eko urria eta 2002ko martxoa bitartean Bake Konferentziak gizartean eztabaida bultzatzeko elkarrizketa politikoarekin batera, ezinbestekoa den, solasaldi publikoen ziklo zabal bat burutu du. Bake Konferentziaren Liburuak, «Bakeak egiteko gakoak» izenburuarekin dagoeneko argitaratuak, gizarte hausnarketaren hamabi ekitaldietako ondarea jasotzen du. Bertan, biktimak, ordezkari politikoak, gizarte eragileak, adituak, iritzi-buruak, eta beste bake-prozesu eta gatazka-konponbideetan esperientzia izan duten protagonistek hartu dute parte.

Guztira 36(1) hizlari gonbidatu ziren akordiorako puntu minimoak zehaztera eta gure herrian bakea eraikitzeke hausnarketak eta proposamenak egitera. Bake Konferentziaren Liburuaren 188 orrialdeetan hamabi ekitaldietako kronikak jaso dira, hitzaldi bakoitzean esandakoaren ideia nagusiak eskainiz. Karpeta honetan liburuaren ondorioen azken atala irakur daiteke, «Bakeak egiteko gakoak sintesi posible bat» izenburua daramana hain zuzen. Atal honetan hamabi mahai-inguruetatik ateratako datuen zeharkako irakurketa egiten saiatu gara. Bost puntu edo orientabide nagusitan bildu dira ekarpenak.

Oinarrizko diagnosis: bakea ikusteko hainbat modu daude

Liburu honetan ageri diren 36 iritziak irakurritz atera litekeen begi-bistako ondorioa da hori. Nabarmena izateak, ordea, ez dio garrantzirik kentzen. Honako honetaz jabetzeko izan behar zaigu lagungarri diagnosis: ikuspegi, biografia, esperientzia, premia, itxaropen edo interes desberdinak ditugulako dauzkagula bakea ikusteko modu desberdinak. Bake monolitikorik ez dago, horra beste ondorio bat. Bakea –singularrean– gizarte osoak nahi duen helburua da; baina bidea pluralean landu beharrekoa izaten da; horregatik esaten da, nonbait, «bakeak egitea».

Baldintza: bestea onartzea, baita haren bakearen, egiaren eta hutsegiteen proportzioa ere

Lehentasan desberdinak ditugula abiatu gara, beraz, bakearen eta konponbideen bila. Testuinguru horretan, «bestea» aintzat hartzea, haren bakea, egia eta hutsegiteak onartzea ezinbesteko baldintza dugu. «Bestea» aintzat hartze hori izan da hamabi mahai-inguru hauen zeharkako giltzarrietako bat eta, dudarik ez, horri esker atera ditugu hainbat ondorio positibo. Adibidez, bakeak egiteko –pluralean– eta «bestea» onartzeko –bere arrazoi-puska eta guzti– asmo horrekin zuzeneko lotura duten hiru oinarri definitzeko lagungarri izan zaigu.

1. oinarria: giza duintasunarekiko errespetua onartzea printzipio nagusizat

«Bestea» aintzat hartzea eta onartzea honako irizpide honetan oinarritzen da, finean: gizaki guztioi giza duintasun berbera dagokigu. Euskarri horrexek lotzen ditu elkarrekin hamabi mahai-inguru hauetatik ateratako adostasun eta ideia nagusiak. Ikus dezagun honako zerranda honetan: «bakea eskubide eta helburu gisara», «giza eskubideekiko konpromisoa» eta «indarkeria jasaten duten guztiekiko elkartasuna»; «guztiontzako herria eraikitzea», «alderdi guztien parte-hartzea bultzatzea», «genero-ikuspegia bertaratzea» eta «gizartearen partaidetza sustatzea»; edo «berdintasunaren, printzipio demokratikoen eta aniztasunaren alde konprometitzea». Hari berberaz daude josiak adostasun-faktore izan daitezkeen horiek guztiak: «berdintasuna duintasunean» printzipioaz, alegia. Bideragarriagoa gerta liteke, hortaz, adostasunak bilatzea, jorratzea eta zehaztea giza duintasunarekiko errespetua abiapuntutzat hartuz gero, horren esanahian eta irismenean sakontzeko erronka onartuz gero.

2. oinarria: jarrera eraikitzaileez tratatzea desberdintasunak

«Besteari» dagokion egiaren zatia onartzeak desberdintasunak onartzea ere badakar. Eta, batez ere, desberdintasunak beste era batera, modu eraikitzailean, tratatzeko premia dakar. Hona hemen horri buruzko hiru irizpide:

(1) Adostasunei lehenetasuna ematea eta printzipioei zein prozedurei ekitea batik bat. Lehenik eta behin, bereizten gaituenari ez zaio utzi behar bazter guztiak bereganatzen eta bere mende hartzen. Bigarrenik, prozedurei eta printzipioei ekiteak honakoa dakar berekin: konponbidearen inguruko eztabaida atzeratzea eta lehenbizi hura aurkitzeko egin beharreko bidea zein den erabakitzeko ados jartzea.

(2) Esaten ez denari ere kasu egitea. Gatazka- eta indarkeria-egoeretan izaten dira –esplizituz gain– hasieran ikusten ez diren hainbat eskaera. Liburuan agertu diren desadostasun nagusien zerrendan antzeman daiteke hori: «gatazka definitzea», «konponbide-eredua», «elkarrizketaren ezaugarriak eta horri ekiteko baldintzak», «eskubideen hierarkia (norbanakoak eta kolektiboak)», «erabakimen-esparrua» edo «gaur egungo esparru juridiko-politikoa aldatzeko aukera». Geroak eragiten duen ezinegonarekin eta «besteek» izango dituzten asmoekiko mesfidantzarekin dute lotura desadostasun horiek guztiek. Baina horietako bakar bat ere ez da esplizituki adierazten. Elkarrizketari uko egitea edo indarkeria erabiltzea honakoa dira, besteak beste: beldurra sortzen duen geroa geratzeko asmoz oraina blokeatzeko erak. Bakea eta konponbideak aurkitzeko konfiantza sortu behar da, «batzuen» eta «besteen» asmoen inguruko aurreiritziak eta uste okerrak argitu egin behar dira, etorkizuna kezkarri eta mehatxugarri gerta ez dakigun.

(3) Bidea errazten duten jarrerak bultzatzea. Aipatu ditugun bi irizpideekin batera, desberdintasunei modu eraikitzailean ekiteko borondateak honako konpromiso honetara bultzatu behar gintuzke: bidea errazteko jarrerak erabiltzera. Jarrera horietako batzuk aipatu izan dira hamabi mahai-inguruetan zehar eta ondorio gisa jaso ditugu: «elkarrizketarako etengabe prest egotea», «besteak entzutea eta haren lekuan jartzea», «aurkarien jarreretan dagoen egia eta arrazoia onartzea», «konfiantza sortzea», «hasitako bideari eustea»...

3. oinarria: lankidetzaren prozesuak bultzatzea


«Bakeak egiteko» eta «besteak onartzeko» premiari buruzko diagnosiak honakoa dute ondorio logikoa: «batzuen» eta «besteen» itxaropenak gurdi berean jartzeko lankidetzaren prozesuak bultzatu beharra. Lankidetzaren prozesu ugari legoke, printzipioz, eta hamabi jardunaldi hauetan jasotakoak adibide esanguratsua dira: «bakearen kultura», «indarkeria-mota guztiak bertan behera uztea» eta «gatazkaren humanizazioa», «elkarrizketa», «bitartekariak edo kanpoko laguntza bilatzea», «herrigintza», «baketza hauteskunde-prozesutik kanpo uztea» edo, azkenik, «gobernagarritasun-, burujabetza- eta segurtasun-era berriak bilatzea».

(1) Gorka Landaburu, Lourdes Zabalza, M^a Carmen Hernández, Gurutz Jauregi, Ramón Zallo, Kontxi Bilbao, Jone Goirizelaia, Begoña Lasagabaster, Gemma Zabaleta, Josune Ariztondo, Noemí Otegi, Daniel Díez, Andoni Iturzaeta, Naroa Jauregizuria, Joseba Fernández, Txus Arana, Fabian Laespada, Jonan Fernández, Vicent Martínez Guzmán, Félix Martí, Alec Reid, Tim Phillips, Harry Barnes, José M^a Mendiluce, Xavier Rubert de Ventós, Iñaki Gabilondo, Máximo San Juan, M^a Antonia Iglesias, Santiago Carrillo, Enrique Curiel, Javier Tusell, José Saramago, Albert Reynolds, José Woehrling, Benoît Pelletier, Daniel Turp.

2. Koadroa. «Liburu» bat proiektuaren emaitzak

1. Adostasunak	2. Desadostasunak	3. Lan hipotesi eraikitzaileak	4. Gomendioak
<ul style="list-style-type: none"> -Bakea: eskubide eta helburu gisa. -Giza eskubideekin konpromisoa. -Printzipio demokratikoak. -Aniztasuna aintzat hartzea. -Denontzako herria. -Gizartearen partaidetza, premiazkoa. -Sufritzen duten guztienganako elkartasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> -Gatazkaren jatorria: badago ala ez dago arazo politikorik? -Konponbide politikoa versus polizia-konponbidea. -Bizitzeko eskubidea. -Autodeterminazio-eskubidea. -Erabakimen-esparrua. -Elkarriketa: ezaugarriak eta baldintzak. -Egungo esparru juridiko-politikoak aldatzeko aukerak. 	<ul style="list-style-type: none"> -Indarkeria mota guztiak bertan behera uztea. -Bakearen kultura. -Elkarriketa. -Berdintasun printzipioa. -Ikuspegi guztiak bildu. -Bitartekariak eta kanpoko laguntza bilatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> -Konponbideei baino gehiago, printzipio eta prozedurei eskalari arreta. -Gobernagarritasun-, burujabetza- eta segurtasun- era berriak bilatu eta sortu. -«Herrigintza». -Genero-ikuspegia bertaratu. -Baketzea hauteskunde-prozesutik kanpo uztea. -Bidea errazten duten jarrerak: <ul style="list-style-type: none"> -Etengabeko negoziatzaileko prest egotea. -Entzutea eta bestearen lekuan jartzea. -Besteen jarretan dagoen egia eta arrazoia aitortzea. -Konfiantza sortzea. -Eustea eta irautea.

5. Laburpena



Bake Konferentzia

3. Proiektua

«Dosier» bat

**Gizartearen parte-hartzea:
emaitzak**

3. Proiektua. «Dosier» bat

Gizartearen parte-hartzea: emaitzak

Bake Konferentzia prozesuaren lau ardatz nagusietako bat gizarteari informazioa eskaintzea eta bere babesa, iritzia eta parte-hartzea eragitea izan da. Bake Konferentziako gizartearen parte-hartzearen Dosierrean, maiatzan argitaratua eta aurkeztua, 2001eko urritik 2002ko maiatza bitartean banakakoen eta kolektiboen 5.000tik gora ekarpenak zein inkestaren bidez jasotako iritzia laburbildu dira. Karpeta honetan ondorioen atalaren laburpena eskaintzen da.

Jasotako iritzien ñabarduren kopurua eta mota izugarri handia izan da. Lan zaila izan da, baina ez ezinezkoa. Izan ere, ekarpen gehien-gehienek joerak norabide berdintsuan mugitzen dira edo, gutxienez, elkarrekin bateragarriak dira. Badira gure gizartearen, zorionez, bateratze-eremu zabalak. Azken urteotan egin diren inkesta guztiek berresten dute baieztapen hori eta lan hau erraztu eta, batez ere, bakea lortzeko euskarri hobereana da, baita gizarte-zatiketaren aurkako antidoto hobereana ere.

I. Garrantzikoena: adostasun sozialerako hiru oinarri

«Adostasun-oinarriak» deitu ditugu eta ez «adostasunak»; iruditzen zaigu, izan ere, konbentzio sozial horiek ez dutela jada ideia edo kontzeptu bakarra euskarritzat, bipolarrak direla baizik, hots, bi kontzepturen arteko harremanean oinarritzen direla. Hona zein diren Adostasun Sozialerako hiru Oinarriak: «bakea-giza eskubideak», «elkarrizketa-aniztasuna» eta «berdintasuna-printzipio demokratikoak». Gure gizarteak garrantzizkotzat dakusanaren zati dira hirurak, baita oso zabalduak dauden irizpideen isla ere.

Adostasun Sozialerako Oinarri bakoitzak prozedura batekin lotzen du printzipio bakoitza: (1) bakea, (2) aniztasuna eta (3) berdintasuna printzipioak (1) giza eskubideen, (2) elkarrizketaren eta (3) araubide demokratikoen prozedura edo tresnekin uztartzen dira. Eta hauek haiekin, elkarrekiko mendekotasun-harremanean. Elkarrizketaren prozedura martxan jartzea, adibidez, ez zaio aski gure gizarteari baldin eta prozedura hori ez badago aniztasunaren eta askatasunaren oinarriari lotuta, edo alderantziz. Ezin da bakea aldarrikatu eta giza eskubide jakin batzuen urraketatik sumindu eta beste eskubide batzuk bortxatzen direnean ezikusiarrena egin. Adostasun-oinarri bakoitzean dagoen barne-harremanaz gain bada, izan ere, oinarri batzuen eta besteen arteko harremanik ere.

Horrenbestez, adostasun sozialak urrundu egiten dira pentsaera sinpletik eta ñabardurazko pentsaerara hurbiltzen dira. Ideia, printzipio edo formulazio itxi eta monolitikoek soilik ez dute balio: elkarren aberasgarri diren ideiak bereganatzeko joera du gure gizarteak. Adostasun sozial nagusiak askotarikoak dira, polo desberdin eta osagarrien arteko harreman produktiboa finkatzen baitute. Gizartearen heldutasunaren eta bake zein kontzientzia kultura sendotu izanaren adierazgarri dugu hori guztia.

•Bakea eta giza eskubideak / Giza eskubideak eta bakea

Horra adostasun argiena eta zalantzarik gabekoena. Horien gabezia da, gizartearen ustez, bakerako oztopo nagusia; aitzitik, bi gai horiek dira (elkarrizketarekin batera) gutxienezko baldintzak adostasunerako, herritar gehienek ustez. Giza eskubideei dagokienez, bizitzarena da goren-goreneko eskubidea, euskal herritarren iritziz. Eta eskubide hori etengabe bortxatzea da gizartearen asaldura eta min handiena eragiten duen faktorea. Gainera, gero eta hedatuago dago giza eskubideak absolutu etikotzat hartzeko joera. Gai honi dagokionez, atxilotutakoen edo presoek eskubideekiko sentsibilitate soziopolitiko berezia ari da garatzen gure gizartearen. Giza eskubideen

kultura horrek lehentasuna ematen dio indarkeriaren, giza eskubideen urraketaren eta izuaren biktima guztiak babesteari eta laguntza aktiboa emateari.

•Elkarrizketa eta aniztasuna / Aniztasuna eta elkarrizketa

Errealitate-printzipio bikoitza dugu honakoa. Gizarte konplexua gara; badira gure baitan hainbat nortasun politiko, nazio-sentimendu, kultura eta hizkuntza. Gure gizartea horretaz ohartzen da. Badaki, hortaz, desberdinen arteko elkarrizketarik gabe ez dagoela konponbiderik; badaki, halaber, pentsaera guztiak integratuz gero –eta, ondorioz, aniztasuna bermatuz gero– bakarrik dagoela konponbiderik. Elkarrizketaren prozedura eta aniztasunaren printzipioa elkarri estu loturik daude, izan ere. Elkarrizketa onartzeak berarekin dakar «bestea» aintzatestea eta onartzea. Bateriaezina da arerioaren eliminazioarekin edo aukera politiko bat legez kanpokoa egin nahi duen baztertze estrategiarekin.

•Berdintasuna eta araubide demokratikoak / Araubide demokratikoak eta berdintasuna

Gure gizarteak nahi duena da indar politiko guztiek beren proiektuak garatzeko baldintza politiko, demokratiko eta askatasun berbera izatea. Berdintasunaren aldeko sentimendu honek lotura estua du araubide demokratikoak errespetatzearekin; beraz, gutxiengoaren oinarritzko eskubideak bermatzea eta gure gizartearen gehiengoaren erabakiak aintzat hartzea dakar horrek.

II. Premiazkoena: gure gizartearen bi lehentasun


•Indarkeriaren amaiera

Indarkeria amaitzea da gure gizartearen lehentasun nagusia. Hilketak gehiago ez egotea eta bizitzeko eskubidea errespetatzea da premiazoena, ETARi aldarrikapen zuzena litzatekeena. Irizpide horren aldeko arrazoiak tinkoak eta ugariak dira. Etikoak, moralak, politikoak, demokratikoak... dira arrazoiak, baita praktikoak ere. Gure gizarteak ez du onartzen indarkeria erabiltzea; bere arazoak hausnartzeko eta konpontzeko heldua dela deritza. Eta modu baketsuan, politikoki eta demokratikoki konpondu nahi ditu aipatu arazoak.

•Elkarrekiko bermedun hitzarmena

Bigarren lehentasuna beste honakoa da: gure barne-harremanetan eta Estatuarekin ditugunetan adiskidetze-bidean jarriko gaituen elkarbizitza-esparrua aurkitzea. Helburu hori lortzeko hauxe da premiazoena: gure gizarteko gehiengoaren erabakiak errespetatzea eta gure gizartearen aniztasuna bermatzea elkarrekin uztartzeko hitzarmena lortzea. Beste hitz batzuekin esanda, honako gai hauetan ados jarriko gaituzten araubideak edo bermeak finkatzea: (1) gizarteko gehiengoaren babesa duen edozein proiektuk hori gauzatzeko bide demokratikoak eduki behar ditu, eta (2) bi tradizio politiko nagusien eskubideak alde biak lotesten dituen oinarritzko adostasunaren bidez bermatu behar direla (edozein dagoelarik ere gehiengo zein gutxiengo egoeran).

3. Koadroa. «Dosier» bat proiektuaren ondorioak



Bake Konferentzia

4. Proiektua

«Orri» bat

**Bakerako akordio zabal bat
bilatu nahiean**

Aurkezpena

Adostasun «Orri» bat Bake Konferentziaren helburu nagusia eta prozesu honen laugarren proiektua da. Karpeta azken zati honetan, eztabaidatzen ari diren bi zirriborro aurkezten ditugu. Lehenengoa Bake Konferentziak bilatzen duen adostasun-orri hurbiltzen saiatzen da eta bigarrenak aurrekoaren interpretazio-esparrua eskaintzen du. Honekin batera, prozesu honetan parte hartzen ari diren alderdi politikoek orain arte egindako lanaz igorri duten balorazioa erantsi dugu.

Zirriborroak idazten amaitu gabeko testuak dira eta, ondorioz, ez dira oraindik akordio bat. Dokumentazio honek osorik topaleku bat irudikatzen du. Aurretiko eta oinarritzko bat etortze baten lagina da baina, aldi berean, ezinbestekoa adostasuna lortzeko. Orain aurkezten ari garenak, beraz, behin-behineko balantzearen izaera du. Datorren urrian, adostasun baten bila egindako prozesu honen behin betiko balantzea eskaintzea da gure helburua.

Adostasun-orri baterako zirriborroak idazteko lana Juan Pablo Fusi, Juan Manuel Sinde, Mariano Ferrer, Victoria Camps, Ramón Múgica, Sylvia Gay, Jesús Valencia eta Sabino Aiestaranen esku egon da. Zortzi moderatzaile hauei eskertu behar dizkiegu: ofizio onak, ardura, agertutako gogoia eta ilusioa. Guztiek onar zezaketen hizkuntzean, alderdi politikoaren artean, bakerako eta bizikidetasunerako adostasun-prozesu baten joko-arauen inguruko proposamen bat idazteko eskaera jaso zuen moderatzaile talde honek.

Lan egiteko metodoa erraza da baina, aldi berean, nekeza: adostasun baterako oinarri izan zitezkeen edukiak aukeratzeko eztabaidak moderatzaileen artean, alderdi politikoei kontsultak egin ideia horiek zehazteko, zirriborroak idatzi eta berriro alderdi politikoei kontrastatu, jasotako ekarpenekin testuak berridatzi, kontsulta berriak, eta horrela, behin eta berriro, ahalik eta gehien hurbildu arte.

Bagenekien eta badakigu desadostasun eta zatiketa faktoreek, eta hauek eragindako ekintzek, diagnostiko bateratua egitea eragotzi eta alderdi politiko guztien arteko prozesu bat martxan jartzea blokeatzen dutela. Dena dela, blokeo hau gainditzeko, konfiantza minimoa sortzeko eta egoera hobetzen saiatzeko modurik bideragarriena aipatutako prozesuak zein oinarri beharko lituzkeen argitzea da, horretaz konbentziturik gaude.

Hau da, hain zuzen, Bake Konferentzian egin dena: gaur biharko prozesu baten printzipioen, konpromisoen eta bermen inguruan akordio bat prestatzen saiatu guztiok partekatu ahal izateko. Hau guztia uste sendo batekin: etorkizunaz ditugun ezjakintasunak eta mesfidantzak argitzeak, orainaldiari modu eraikitzailean, baliagarrian eta lankidetzan aurre egiteko lagun dakiguke.

Behin-behineko prozesu honen balantzeak bi gauza erakusten ditu. Lehenengoa, bakearen aldeko akordio zabal bat lortzea ez dela ezinezkoa, aldiz, posiblea da eta gauza daiteke. Bigarrena, aurkako testuinguru batek posiblea, beharrezkoa edo premiazkoa eragozteko edo geldiarazteko gaitasuna duela. Urrirarteko gure lan-plangintza baldintzak sortzea izango da, adostasun hau posible izateaz gain errealia ere izan dadin. Honela, gaur topaleku bat irudikatzen duena, adostasun praktikoan bilaka dadin. Honekin guztiarekin, gure azken proiektua Bake Konferentziaren prozesu honen edukiak konpromiso zehatz eta erabilgarri batean laburtzea da.

elkarri

Indar politikoen arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak

SARRERA

Dokumentu honen helburua da alderdi politikoen konpromisoa hartuta prozesuaren oinarriak ezartzea, hau martxan jartzeko une egokia dela iruditzen zaienerako. Prozesu hau indar politiko guztien topaleku eta lana partekatzeko foro gisa ulertu behar da aurretik adostutako epe mugatu batean. Askatasunean, berdintasunean eta aniztasun politikoan oinarritutako bizikidetasuna bultzatzea da bere helburua.

A. PRINTZIPIOAK

Oinarrizko esparru honek, gutxienez, ondorengo printzipioetan oinarritu behar du:

- Pertsonen duintasunari eta giza eskubide guztiei eta honetatik eratorritzen diren oinarrizko askatasunei errespetua bai banakoei eta bai taldeei dagokienez.
- Aniztasun politiko, soziala eta ideologikoa, eta gure ordezkariak esparruko nazio-identitate sentimenduen aniztasuna onartu eta bermatu.
- Konfrontazio politikorako eta aldiberekotasun publikorako baldintza demokratikoen berdintasuna.

B. PROZESUAREN KONPROMISOAK

Prozesu honen garapen eraginkorra ondorengo konpromisoetan oinarritzen da, bere garaian, definizio zehatzagoa beharko dutelarik:

- Inolako biolentzia modurik eza, bortxa nahiz mehatxu.
- Onartzea, adostasun-prozesu honetan har litezkeen erabaki guztiak ez direla aldebakarrekoak.
- Onartzea gaur egungo esparru juridiko-politiko ez dela aldaezina.
- Onartzea adostasun-prozesu honen emaitza gizarteak demokratikoki legitimatua izan beharko duela.

C. PROZEDURA-BERMEAK

Adostasun-prozesu honen balizko garapena hurrengo prozedura-bermen arabera antolatuko da:

1. Nortasun eta tradizio nazional eta politiko desberdinen errespetua bermatzeko, adostasun-prozesuak horrek behar dituen kontsentsuak definitu behar ditu aurrez eta adostasunez.
2. Prozesu honek ez du aurrez zehaztuta helmuga. Bide emango du egungo eredu autonomikoa berresteko, beste interpretazio baterako nahiz esparru aldaketarako.
3. Emaitzen legitimazioa alde aurretik adostutako prozeduren bidez eta gizartearen borondatea errespetatuz egingo da.
4. Prozesu honetan parte hartu duten alderdi politikoen emaitzak erabakiguneetara eramateko tramiteak hasiko dituzte hauek betearazteko. Emaitza horien inplementatzea, dagokien erakundeekin negoziatu eta itun bidez onartu behar da.

5. Prozesu honek soilik bide eta metodo demokratikoak onartzen ditu. Indar politikoek prozesuaren emaitzak onartuko dituzte eta, emaitza hori aldatzeko, adostutako arau eta berme berberak errespetatuko dituzte. Hau onartzeak, inposaketari uko egitea eta indarkeriaren zein mehatxuaren erabileraren aurka agertzea dakar.

Interpretazio-esparrua: Bat datozen borondate politikoak

Bi oztopo nagusi ditu gaur egun indar politiko guztien partaidetza bereganatu nahi duen adostasun-prozesuak. Batetik, erabat kontrajarriak dira indarkeriaren inguruko –horren zergatiak, erantzukizunak edo alternatibak– analisiak. Bestetik, desadostasun nabarmenak daude honako gai hauetaz: egungo esparru juridiko-politikoaren balorazioaz, bere historiaz, legitimotasunaz edo ahalmenetaz, eta zehazki subjektu politikoaz edo politikoetaz.

Baina, nolana dela ere, ezin dugu etsi. Eta bada horretarako –ez etsitzeko– hainbat arrazoi: bakea lortzea, indarkeriarik gabe bizitzea elkarrekin, ahalik eta osotasun demokratiko handieneko eremua eskuratzea. Beraz, batzen gaituena –edo batu gaitzakeena– zehaztea ere erantzukizun politikoaz jardutea da, eta politikari zein gizarteari baliagarri zaiolakoan ekiten diogu eginkizun horri. Denok hainbat egitasmoren inguruan bat gatozela hitzez adierazteak ez ditu sakabanaketak ezabatuko, baina horretarako bidea jorratzen lagundu egingo du. «Indar politikoaren arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak» deritzenen inguruko adostasuna bat gatozen honako adierazpen politikoaren ikuspegitik interpretatu behar da:

- Gure gizarteak konpontzeke dituen arazoak eta gatazkak soilik jarduera demokratikoen bidez gainditzeko asmoa dugu. Halaber, gure arteko desberdintasunak bake-bidez konpontzeko hainbat prozedura eta printzipio onartzeko eta aintzat hartzeko borondate sendoa dugu.
- Jokaerak humanizatzeko konpromisoa dugu, baita gizarteak biktima guztiak aintzat hartu, haien ahotsa entzun eta jasan duten sufrikarioa leuntzeko ere.
- Gure gizarteak den bezalakoa izaki egokitu behar duela uste dugu: naziotasun-sentimendu, hizkuntza, estatu-eredu, proiektu politiko, diagnostiko eta mito desberdinak bere baitan dituela, alegia; inongo proiektu politiko debekatu edo zokoratu gabe, eta gogoan izanik ez egia ez arrazoia ez daudela inoren teiltupean oso-osorik edo bakarrik. Askotariko gizartean elkarrekin bizitzeko ez dute oztopo izan behar gure honako edo harako nortasun-sentimenduek.
- Gizartearekiko gardentasunez aritzeak honakoa eskatzen du, gure ustez: gure herriaren etorkizunerako bakoitzak daukan proiektu politikoaren argiro azaltzea. Esan dezagun etorkizun hori ez dagoela aurrez inon idatzita; gure gizarte osoari dagokio geroa eraikitzea adostasun sozialek baimentzen duten mailaketarekin.
- Hitzezko desarmearen borondatearen aldekoak gara. Indar politikoaren arteko elkarriketa iraunkorra, guztientzat baldintza berberak dituen eta horretan parte hartu nahi duten erakunde politiko guztiei zabaldua bultzatzen dugu.
- Gaur egungo esparru juridikoaren azterketa kritikoa, askea eta zintzoa egin behar dela deritzogu, azken urteotako historia, etorkizunerako ditugun asmoak eta gure inguruneko herrien esperientzia aintzat hartuta, aukera politiko guztien artean elkargune eta orekagarri gisara baliagarri zaizkigun aztertzearen.
- Honako akordioa lortu nahi dugu: soilik bide demokratikoak erabiliz gehiengo baten onspena jasotzen duen edozein proiektu politiko gauza daitekeela. Gizarte oso-osori jakinarazi behar zaio zein diren horretarako bideak, jada zabalik nahiz zabaltzearen daudenak.
- Jokalariei irabazteko besteak derrigorrean galdu beharra daukan jokorik ez dugu nahi: gizarte osoa irabazte suertatuko den prozesua nahi dugu, guztiek horretan abantailarik sumatzen dutelako eta sentikortasun politiko desberdinak integratuak sentitzen direlako.

Alderdi politikoaren balorazioak



Orain arte egindako lanaren inguruan EAJk egiten duen hausnarketa

Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez, gure herrian bizi ditugun arazo eta gatazka gordinak gainditzeko ezinbestekoa da indar politikoen arteko akordioa helburu duen prozesua abian jartzea.

Prozesu horrek oinarri, konpromiso eta berme jakin batzuk behar lituzke, eta horiek oso era egokian deskribatzen dira Bake Konferentzian landu den «Orrian». Gure alderdia bat dator aipatu testuan agertzen diren edukiekin. Gainera, zaila egiten zaio formato labur horretan ekarpen zentzuzkorik proposatzea, hain da borobila idatzia.

Gainera, oso egoki jotzen ditugu bai erabili den metodologia (moderatzaileen lana, etab.) eta baita gizartearen aldetik edota hainbat pertsonaia ezagunen aldetik lortu den inplikazioa.

Dena dela, prozesua abian jartzeko, ezinbestekoa izango litzateke, gure ustez, gaur egun gure errealtatearengan eragin zuzena duten bi jarrera konkretu gainditzea:

1. Heriotza eta izua hedatzen duten estrategia armatuak, eta nagusiki ETaren bortizkeria.
2. Etsaiaren suntsipena helburu duten estrategia antzuak, eta zehazkiago esateko, ideien ilegalizazioa eta zenbait erakundeen isolamendu politiko eta soziala helburu duten jarrerak.

Gure ustetan, kontraesan larria da prozesua abian ipintzeko proposatzen diren edukiak ontzat ematea eta, aldi berean, eduki horiekin bateraezinak diren jarrera eta ekimenei babesa eskaintzea edo euren aurrean isilik egotea.

2002ko ekaina
EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarra

PSE-EE



Elkarrik eginiko eta alderdi politiko guztiei helarazitako txostenak direla-eta –«Indar politikoen arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak» eta «Interpretazio-esparrua: Bat datozen borondate politikoak» izeneko txostenak–, honako hausnarketa egin du PSE-EEK (PSOE):

I. Gure iritziz, jarduera terrorista oro eta gizartearen zati batek pairatzen duen mehatxu-zein jazarpen-giroa amaiaraztea ezinbesteko baldintza da inolako akordio-prozesuri ekiteko.

II. Lehen zirriborroari (orriari) dagokionez:

- Gogoan hartzen dugu hitzaurrearen edukia, txostenaren edukia finkatzen duen aldetik, baita prozesuaren oinarriak eta horren helburua ere.


- Aipatu zirriborroaren A, B eta C atalei dagokienez, PSE-EEK (PSOE) honakoa uste du: hor ageri diren printzipio, konpromiso eta bermeak Espainiako Konstituzioak, EAEko Autonomia Estatutuak eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak diotenaren arabera interpretatu behar direla.

III. Bigarren zirriborroari dagokionez –interpretazio-esparruari buruzkoa– gogoan hartzen ditu PSE-EEK (PSOE) moderatzaile-taldearen borondate politiko adierazpenak, aurkeztutako testua nola interpretatu behar den zehazten dutenak. Bat gatoz –nola ez– «bakea erdietsi, indarkeriarik gabe bizi eta elkarbizi, osotasun demokratikoko esparru ahalik eta zabalena lortu» helburuekin.

Azkenik, PSE-EEren (PSOE) iritziz, zehaztasun-maila handiagoa behar dute proposamenaren testuan ageri diren gai askok, hori idatzi dutenen ahaleginaz jabetzen bagara ere. Euskadin giza eskubideen eta askatasunaren alde jardutea helburu nagusitzat duten alderdi, elkarte eta mugimenduekin elkarlanean jarraitzeko prest dago PSE-EE (PSOE).

2002ko ekaina

BATASUNA



batasuna

Batasunaren iruzkina

Elkarriren Bake Konferentziaren ideia abian jarri zenean, gure erakundeari planteamendu oso anbiziosoa helarazi zitzaion: alderdi guztien arteko idazki hitzartua, alegia. Honetarako, besteak beste, metodologia berria asmatu zuten, behintzat, alderdi batzuk zeukaten aurreiritzia gaingitu nahian.

Zalantzarik gabe, moderatzaileen bitartez eztabaida lasaia egin da eta beraiei dagokie egindako lan eskeraren emaitza goxoak, zeren eta ukaezina da gogoz eta adorez lanari ekin diotela eta positibotzat besterik ezin da hartu, Bake Konferentziaren markoan egindako ekarpen guztiak.

Guretzat aberasgarria izaten ari da esperientzia bezala, eta zinez Elkarrik parte hartzeko emandako aukera eskertu behar dugu, tamalez hantxe eseritzen diren alderdi gehienek aldetik ohiko bihurtu denean gurekin ezer ez hitzartzea, ezer ez eztabaidatzea, ezer ez hitz egitea.

Azkenaldi honetan, zirriborro ezberdinak landu ditugu, askotan filologo talde baten antza hartuaz, baina guk hasieratik irizpide argia finkatu nahi izan dugu: adostasuna lortzeko, borondatea eduki eta azaldu behar da.

Euskal Herri honetan, egoera politiko honekiko desadostasunak gatazkaren muina markatzen du eta borondatea aldaketa politikoan datza, egoera edota dinamika politiko berri bat sortzeko konpromisoan, alegia. Nola edo noiz egingo diren, bigarren mailako eztabaidak dira borondatearekin konparatuz, beraz, oraindik orain, aldaketa demokratikoaren beharra zain daukagu.

2002ko ekaina
Mahai Nazionala



Elkarriren Bake Konferentzia: bakerako orri bat

Gatazka politikoak dituen bi espresioak –Euskal Herria estatuekin eta euskal gizartearen barnean, gizartearen gehiengoa eta giza eskubideak errespetatzen ez dituen gutxiengoaren artean–, bere ondorio krudel eta beti luzeegia den min arrastoarekin, justizian oinarritutako bake eszenatoki baten kokatutako konponbide bat lortzera behartzen gaitu.

Eusko Alkartasuna, gure erradikaltasun demokratikotik eta militarismoa ukatzen duten balore bakezaleen defentsan, hiritarren ordezkaritza hautestontzien bitartez kreditatuta daukaten alderdi politikoaren arteko eztabaida, negoziaketa eta akordioak gure herrikideek gero eta premi eta sendotasun handiagorekin exijitzen diguten pazifikazio eta normalkuntza politikoa lortzeko aukera posible bakar bezala direla uste izan dugu beti.

Irabaztera edo bakoitzaren proiektua indarrez inposatzeko aukerari uko egitea eta konbentzitzearen aukera hautatzea da, gure ustez, normalkuntza politikoa ahalbidetzen duen eszenatoki berri batera ailegatu ahal izateko era bakarra, indar politiko eta eragile sozial guztien arteko lankidetzarekin eztabaida prozesu baten ondorioz izanda normalkuntza politiko hori.

Eusko Alkartasunaren ustez eztabaida, negoziazio eta akordio giro hau ahalbidetzen dituzten neurriak, bai alderdi politikoarenak baita beste edozein eragile sozialenak ere, positiboak dira. Urrats horietako bat izan da Eusko Alkartasunaren aburuz Elkarrizketaren Bake Konferentzia. Bake Konferentziaren diseinua alde askotako elkarrizketa prozesu bat abiarazi ahal du eta bere emaitzak eman ditu: alderdien arteko adostasun folio-zirriborroan. Emaitza eskasa irudi daiteke, baina garai honetan, non akordioen kontrako joera da nagusi, adostasun bat zehazterakoan aurrerabide hau itxaropen izpi bat da hain nahigabetze dagoen euskal gizartearentzat.

Folio honetan ezinbestekoak diren hiru aspektuetan hurbiltzeko gai izan gara alderdi politiko desberdinak: printzipioak, prozesuan zehar izan beharreko konpromisoak eta prozesuaren bermeak. Ez da gure iritziz hutsean geratu behar den esfortzua, aldiz, herri honetako alderdi politiko desberdinak abiapuntu sendoa eta zuzena jarri dugu aurrerantzean elkarrizketa, negoziaketa eta akordio prozesu ekidinezin bat abiarazteko.

2002ko ekaina

PSN



«Indar politikoen arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak» eta «Interpretazio-esparrua: Bat datozen borondate politikoak» txostenaren inguruko PSN-PSOE-ren balorazio-iruzkina:

a) Ezinbestekoa da, gure iritziz, jarduera terrorista oro eta gizartearen zati batek pairatzen duen mehatxu- zein jazarpen-egoera (eta horren ondorengo askatasun-murrizketa) amaiaztea inongo akordio-prozesuri ekin aurretik.

b) Orriari (1. zirriborroari) dagokionez, gogoan hartzen dugu hitzaurrearen edukia, txostenaren xedea finkatzen duen aldetik, baita prozesuaren oinarriak eta horren helburua ere.

A, B eta C atalei dagokienez, honakoa uste dugu: hor ageri diren printzipio, konpromiso eta bermeak Konstituzio zein Estatutu ordenamenduek eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak diotenaren arabera interpretatu behar direla.

c) Interpretazio-esparruari dagokionez (2. zirriborroa) gogoan hartzen ditu PSN-PSOEk moderatzaile-taldearen borondate politiko adierazpenak. Bestalde, partekagarriak iruditzen zaizkigu –eta hala azaltzen dugu– «bakea erdietsi, indarkeriarik gabe bizi eta elkarbizi, osotasun demokratikoko esparru ahalik eta zabalena lortu» helburuekin.

d) Azkenik, eztabaidatu diren gai askotan zehaztapen-maila handiagoa beharko litzatekeela iruditzen zaigu, prozesuaren martxak zenbaitetan zehaztasuna lausotzea eskatzen duela ohartzen garen arren. Bestalde, giza eskubideen eta askatasunaren alde jardutea helburu nagusizat duten guztiekin elkarlanean jarraitzeko prest gaudela adierazi nahi dugu.

2002ko ekaina

IU-EB / IUN-NEB



Ikuspegi bakezalea eta federalista abiapuntu dutela, Nafarroako Izquierda Unida-Ezker Batuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izquierda Unida-Ezker Batuak bat egiten dute Elkarriren Bake Konferentziaren printzipio eta helburuekin eta horiekiko konpromisoa adierazten dute. Bakearekikoa da gure konpromisoa eta hori erdiesteko bidean aurrera egin behar dela deritzogu. Bestalde, akordioak lortzeko borondate irmoa dugu.

Gure ustez, erabakimen-esparruak dira bai Nafarroa bai EAE, eta horietako bakoitzetik esku hartu behar da –demokratikoki betiere– helburu politikoak dituen indarkeria ezabatzeko ahaleginean.

Demokrazia da, horrenbestez, EAEko eta Nafarroako IU-EBren federazioak bultzatzen dituen indarra eta xedea. Esan beharrik ez giza eskubide guzti-guztiak zorrotz hartu behar direla aintzat helburu hori lortzeko.

Izan ere, funtsezko gaia da bakerako bidean giza eskubide guzti-guztiak aintzat hartzea –arrazoi etiko eta demokratikoak tarteko–, bizitzeko eskubidea bereziki, horixe baita eskubide ororen iturria. Horregatik errefusatzen eta gaitzesten dugu erabat ETaren indarkeria.

Azkenik, bizikidetasun eta berradiskidetzea egituratzeko akordio sozial eta politikoa behar dela berresten dugu. Honako hiru ardatz hauen inguruan gauzatu beharko litzateke aipatu akordioa: indarkeriarik eza, elkarrizketa eta EAEko zein Nafarroako gizartearen borondatea –askatasun osoz adierazia– aintzat hartzea.

Horregatik guztiagatik diogu beste behin ere elkarrizketa dela adostasunerako tresna nagusia, baita indarkeria darabilten edo legitimatzen dutenen argudioak indargabetzeko gakoa ere. Bakea lortzea badago, horretaz konbentziturik gaude.

2002ko ekaina

CDN



Convergencia de Demócratas de Navarra-CDN-k guztiz positibotzat jotzen du Elkarrik Bake Konferentzia eratzeko eta horri eusteko eginiko ahalegina, bizikidetasunaren oinarri bateratuak finkatzeko eztabaida-forotzat erabil baitezakete gizarteak eta indar politikoeak. Ezinbestekoa da bizikidetasun baketsurako topagunea sortzea arazoak eta horien konponbideak aztertu eta eztabaidatzeko, inongo indarkeriarik gabe adieraz daitezzen norbanakoen askatasuna eta berdintasun-nahia, aniztasun politiko, sozial, kultural eta erlijiosoa oinarri direla.

Gizakia eta bere eskubide zein askatasunak izan behar ditu giltzarri arazo politiko eta sozialen konponbideen inguruko eztabaidak. Eskubide horiek aintzat hartzea eta bermatzea, horrek izan behar du ordena sozialaren eta bakearen printzipio nagusi eta oinarri. Beraz, egitura politiko, sozial eta instituzional guztien helburu gorena horrexek izan behar du: aipatu eskubideak bermatzeko eta garatzeko bitarteko izatea, horien gainera inongo balio ideologikorik jarri gabe. Aukera guztiak dira zilegi, baina galdu egin dezakete legitimotasuna gizabanakoen eskubideen gainera jarri gero, gizakien bizitzaren eta duintasunaren aurka atentaturik eginez gero eta dogmatismo totalitario eta alienatzaile bilakatuz gero.

Printzipio horiek izan behar ditu euskarri gizarte demokratikoak bere-berezkoa duen elkarriketa sozial eta politikoak, aniztasuna onartzen duen eta Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko gisara eratzen den gizarteak, alegia.

2002ko ekaina

AB



Abertzaleen Batasunak (AB) parte hartu du Elkarri mugimenduak antolatutako Bake Konferentzian. Lehen momentutik gure parte-hartzea baitezpadakoa iruditu zaigu ondorioak edo emaitzak jakin gabe ere gisa horretako inizatibak baliagarriak baitira herri honentzako.

Euskal Herriak jasaiten duen egoera ez da ohikoa. Ondorioz, baitezpadakoa da kolektibo batek ikusmolde desberdinen hurbiltze bat bultzatzea. Elkarri da metodo horren bultzatzailea: horretarako hain beharrezkoak diren kemen eta pazientzia ditu. Eginak izan diren lan eta indarrak AB-k txalotzen ditu.

Elkarriri helarazten dizkiogun txaloetaz aparte, azpimarratu nahi dugu bereziki gure proiektu politikoa, gure engaiamendua eta gure militantismoa elkargarri direla, desberdinki pentsatzen dutenekin. Gure praktika politikoak hori frogatzen du eta Konferen-tzian izan dugun parte-hartzeak baita bertaratu ditugun gogoeta umilek errealitate hori isladatzen dute.

Besteekiko errespetua oso koherentea da gure proiektu politikoarekin. Hori erran diegu Elkarriko kideei azken hilabete hauetan, azpimarratua diegu ere beste alderdi politikoei.

Konfrontazio politikoaren ardatz nagusi izan behar du errespetuak. Egitate hori gauzatu arte, mobilizaturik segitzen dugu. Gero agian hurbil batean, Euskal Herriak ez dezan gehiago Bake Konferentziarik antola.

2002ko ekaina

BATZARRE



Euskal Herriko edo Euskal-Nafar Herriko nortasun guztien arteko beharrezko ahalegina bakearen eta adostasunaren alde

Urrats positiboa da, bai edukiagatik, bai barnean duen sakoneko esanahiagatik, elkarrengandik hain urrun dagoen jendeen artean lortu dituen harremanengatik eta markatutako bideagatik: (a) indarkeria politikoak eta bi nortasunen arteko enfrentamenduak (nortasun abertzalea eta euskal-espainiarra) eragindako gatazkaren egungo egoera honetatik (ez aurrera, ez atzera) irtetea, arazoak usteltzea besterik ez baitakar; (b) honako euskarriak bultzatzea: oinarrizko giza eskubideak aintzat hartzea, nortasun- edo nazio-aniztasuna onartzea, aukera berberak proiektu politiko guztientzat, indarkeriarik eza, edozein legediaren «betierekotasun eta mugiezintasun» izaera amaitzea, herritarren borondatea aintzat hartzea botere guztiek (espainiarrek, euskaldunek), espainiar eta euskal nortasunen arteko gutxieneko adostasun-hitzarmena; (c) indarkeriarik gabeko etorkizuna bultzatzea, gatazka eta nortasun-diferentzia bitarteko zibilen bidez gainditu ahal izateko.

Beste zenbait funtsezko gai (feminismoa, berdintasunezko garapen soziala, antimilitarismoa, pobreziaen aurkako borroka, ingurumena...) alde batera utzirik eztabaidari ekitea onartu genuen guztiok. Batzarrek nahiago zukeen «metodo demokratikoen» erabilera aberats eta dinamikoagoa, hau da, gizartearen presioa eta desobedientzia zibilaren legitimotasuna aldaketa sozialerako beharrezko tresnatzat onartzea, are gehiago gure prozesu konplexu honetan (elkarrizketa-enfrentamendua, adostasuna-desadostasuna, aldi baterako edo/eta behin-behineko akordioak eta etengabeko nortasun-gatazka euskal-nafar gizartean).

2002ko ekaina